


MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Atal honetan gure bezeroak definituko ditugu, beraiek baitira gure enpresaren oinarri nagusia. Bestalde, zein merkatu motatan jardungo dugun aipatuko dugu.

Arazo eta behar berdinak dituzten bezero talde handi batean oinarrituta dago gure enpresa, hau da, merkatu masiboan.

Gure bezero nagusiak bi multzo nagusitan banatuko genituzke:

1. **Inguruko tabernak:** bezero hauei gure zerbitzua eskainiz diru gehiago irabaztea ahalbidetuko genieke. Tabernek beren negozioa izateaz gain, janaria etxez etxe eskaintzeko aukera ere izango dute. Horrek diru gehiago irabaztea ahalbidetuko die, aurreko lerroetan aipatu dugun bezala, eta ospe handiagoa ere lortuko lukete.



2. **Gure zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonak:** bezero mota hauei, ordea, erraztasuna eta erosotasuna eskainiko diegu. Etxetik haien jatetxe edota taberna gustukoenetako janaria eskatu dezaketelako dei edo mezu bakar baten bitartez.

